

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- OHAR OROKORRAK (OO)
- HH OHARRAK (HH)
- LH OHARRAK (LH)
- DBH OHARRAK (DBH)

## OHAR OROKORRAK (OO)

### Amazonen 'un click para el cole' kanpainaren inguruan

Asteotan bolo-bolo dabil Amazon multinazionalak Hego Euskal Herrian bultzatutako “*un click para el cole*” kanpaina. Kanpainak bezeroei aukera ematen die erosketen balioaren %2,5a nahi duten ikastetxera bideratzeko. Bezeroek kreditu hori zein ikastetxeri eman aukera dezakete, beti ere ikastetxea kanpainara atxiki bada.

Gure harridurarako Amazonek argitaratutako ikastetxeen zerrendan Hego Euskal Herriko Ikastola gehienak azaltzen direla ikusi dugu, tartean geurea. Zerrenda Amazonek berak osatu du, auskalo zein datu basetatik ateratako informaziotik. Baina horrek ez du esan nahi ikastetxe eta ikastola horiek kanpainari atxiki zaienik, ikastetxeak eman behar baitu horretarako baimena.

Gure Ikastolak ez du zerrendan ateratzeko baimenik eman eta jakitun izan ginenean beraiekin harremanetan jarri ginen zerrendatik gure ikastola kentzeko exijituz. Oraingoan, ordea, ez dugu lortu eskatutakoa betetzea.

Ikastolen Elkarteak Amazon salatzea aztertzen ari da, bat egiten ez dugun kanpaina komertzial batean ikastolen izenak eta datuak bidegabe eta baimenik gabe erabiltzeagatik.

## COVID19

Ohar honen bitartez, **gure ikasleren batek positibo emanez gero** jarraituko dugun prozedura azaldu nahi dizuegu:

- Ume edo gazte batek positibo ematen badu Osakidetzatik familiarekin harremanetan jartzen dira eta informazioa eskatzen diote (kontaktu estuen zerrenda, ikastetxea, eskolaz kanpokoak,...).  
Gure ikaslea bada, idatzizko jakinarazpen ofiziala jasoko dugu Osakidetzatik.
- Familiak ere tutoreari egoeraren berri emango dio eta Ikastolak berria bide honetatik jakin bezain laster eta edozein momentutan dela ere (lan-ordutegi barruan, orduz kanpo, asteburuan,...), ikastolari egokitutako ESiarekin (Osakidetzaren **Erakunde Sanitario Integratuaren** kontaktuarekin) harremanetan jarriko da.
- Behin ESiarekin kontaktatuta, berak eskatutako informazioa emango diogu (geletako eta jangelako kokapenak, gure funtzionatzeko modua jolas-garaietan, ikaslea jangelako edo zaintza zerbitzuko erabiltzailea den ala ez, noiz etorri zen ikastolara azken aldiz, senideak dituen beste mailatan,...), balorazioa egin dezan.
- Balorazioa Osakidetzak egingo du. Kutsatzea zein egoeratan eman den, barne transmisioa egon den ala ez, orduz kanpoko harreman sozialen ondorioa izan den ala ez, kontaktu estuak zein

diren eta horren ondorioz konfinatuta nor geratzen den eta noiz arte OSAKIDETZAK erabakiko du kasu guztietan. Ez da inoiz ikastolaren erabakia izango.

- Kontaktu estuen konfinamenduaren berri Osakidetza berak emango du kasu guztietan familiei telefonoz deituz. Beharrezkoa balitz prozedura arintzeko eta Osakidetza hala eskatuko baligute, guk ere egingo genituzke beharrezko deiak. Baina berriz ere azpimarratu behar dugu erabakia inoiz ez dela gurea eta ez dela gure ardura zer nolako interbentzio-maila egiten den ikastolan.
- Beti **ESI** berarekin jarriko gara harremanetan eta ikastolan izandako kasu guztiak ezagutuko ditu.
- **ESI**a positibo baten gelakideekin kontaktuan jartzen ez bada, esku-hartzerik ez egitea erabaki duelako da eta normaltasunez jarraituko dute ikastolan.

Honaino guk dakiguna. Hortik aurrera zalantzak baldin badituzue, zuzenean Osakidetzarekin harremanetan jartzea aholkatzen dizuegu.

### **EUSKARAREN EGUNERAKO PEGATINA LEHIAKETA**

Euskararen egunerako egin den pegatina lehiaketan, DBH2an gure ikaslea den **Narrea Bordagarai** saritua izan da bigarren sariarekin. ZORIONAK NARREA!

### **IKT BALIABIDEAK**

Ikastolaren [www.zarauzkoikastola.eus](http://www.zarauzkoikastola.eus) atarian edo [LOTURA HONETAN](#) etapa guztiek erabil ditzaketen baliabideak eta gidak aurki ditzakegu. Beti eskura izango ditugu eta baliagarriak izango ditugulakoan gaude.

### **EUSKARALDIA**

Murgildu gara Euskaraldiaren itsasoan. Dotoretu ditugu gure jantziak **AHOBIZI** eta **BELARRIPREST** mezu esanguratsuekin eta gure balkoi eta leihoak [EUSKARALDIA](#)REN banderolekin apaindu. Ondorengo loturetan aholku polit bezain interesgarriak aurkituko dituzue.

[AHO BIZI Aholkua](#) - [BELARRI PREST Aholkua](#)

### **DURANGOKO AZOKA**

“[Zu non, han DA!](#)”. Aurten ez dugu Durangon jende andana ikusteko aukerarik izango, baina azoka etxetik jarraitzeko moduan izango gara. Eta nobedade asko aurkituko ditugu eta hauen artean ikastolako guraso den **Aitziber Etxeberriaren** “[OLIVETTI](#)” liburua. Misterio eta sentimenduz betetariko eleberri honek barruak mugituko dizkigu. Benetan, gomendagarria.

Besterik ezean, adeitasunez,

### ZUZENDARITZA



Estimadas familias:

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

## **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**

### **Campaña 'Un click para el cole' de Amazon**

La campaña "un click para el cole" impulsada por la multinacional Amazon en el País Vasco está muy presente. La campaña permite a los clientes destinar el 2,5% del valor de las compras al centro que deseen. Los clientes pueden elegir a qué centro conceder este crédito, siempre que el centro se haya adherido a la campaña.

Para sorpresa nuestra hemos visto que en la lista de centros publicados por Amazon aparecen la mayoría de las Ikastolas de Hego Euskal Herria, entre ellas la nuestra. La lista la ha completado la propia Amazon, quién sabe de qué base de datos ha extraído la información. Pero eso no quiere decir que estos centros e ikastolas se hayan adherido a la campaña, ya que es el centro el que tiene que dar la autorización para ello.

Nuestra Ikastola no ha dado permiso para salir en la lista y cuando fuimos conscientes nos pusimos en contacto con ellos exigiéndoles que retiraran nuestra ikastola de la lista. De momento, sin embargo, no hemos conseguido cumplir lo exigido.

La Federación de Ikastolas estudia denunciar a Amazon por el uso indebido y no autorizado de nombres y datos de las ikastolas en una campaña comercial que no aprobamos.

### **COVID19**

A través de esta nota queremos explicaros el procedimiento que vamos a seguir en caso de que **algún alumno o alumna dé positivo:**

- Si un niño/a o joven da positivo, desde Osakidetza se ponen en contacto con la familia y le piden información (listado de contactos estrechos, colegio, extraescolares,...).  
Si es alumno o alumna de nuestra ikastola, recibiremos una notificación oficial por escrito de Osakidetza.
- La familia también informará al tutor/a de la situación y tan pronto como la Ikastola conozca la noticia y sea el momento que sea (dentro del horario laboral, fuera de horas, fin de semana,...), se pondrá en contacto con la **OSI** correspondiente a la ikastola (contacto de la **Organización Sanitaria Integrada** de Osakidetza).
- Una vez en contacto con la **OSI**, le facilitaremos la información que ella solicite (ubicaciones en las aulas y en el comedor, nuestra forma de funcionamiento en horas de recreo, si el alumno o alumna es o no usuario del comedor o servicio de guardería, cuándo vino a la ikastola por última vez, en que otros niveles tiene familiares,...) para su valoración.
- La valoración la realizará Osakidetza. La situación en la que se ha producido la contaminación, si ha habido o no transmisión interna, si ha sido fruto de relaciones sociales fuera de hora, cuáles son los contactos estrechos y quién queda confinado por ello y hasta cuándo, lo decidirá Osakidetza en todos los casos. Nunca será una decisión de la ikastola.

- El confinamiento de los contactos estrechos será informado por la propia Osakidetza llamando en todos los casos por teléfono a las familias. Si fuera necesario para agilizar el procedimiento y si desde Osakidetza nos lo solicitaran, nosotros/as también realizaríamos las llamadas necesarias. Pero nuevamente debemos insistir en que la decisión nunca es nuestra ni es nuestra responsabilidad el grado de intervención que se realiza en la ikastola.
- Siempre nos pondremos en contacto con la misma **OSI** y conocerá todos los casos de la ikastola.
- Si la **OSI** no se pone en contacto con los compañeros y compañeras de clase de un positivo es porque ha decidido no intervenir y seguirán en la ikastola con normalidad. Hasta aquí lo que nosotros/as sabemos. Si a partir de ahí tenéis dudas, os aconsejamos que os pongáis en contacto directamente con Osakidetza.

### CONCURSO DE PEGATINAS DEL DÍA DEL EUSKARA

En el concurso de pegatinas para el día del euskera, **Naroa Bordagarai**, nuestra alumna en el 2º de ESO, ha sido premiada con el segundo premio. ¡ENHORABUENA NAROA!

### RECURSOS TIC

En el portal [www.zarauzkoikastola.eus](http://www.zarauzkoikastola.eus) de la Ikastola o en este [ENLACE](#) podemos encontrar los recursos y guías que las distintas etapas pueden utilizar. Siempre los tendremos a mano y confiamos en que nos resulten útiles.

### EUSKARALDIA

Ya nos hemos sumergido en el mar del euskera. Hemos decorado nuestras ropas con mensajes significativos de **AHOBIZI** y **BELARRIPREST** y decorado nuestros balcones y ventanas con banderolas de EUSKARALDIA. En los siguientes enlaces encontraréis unos bonitos consejos.

[AHO BIZI Aholkua](#) - [BELARRI PREST Aholkua](#)

### FERIA DE DURANGO

"[Zu non, han DA!](#)". Este año no habrá una afluencia masiva de gente en Durango, pero tendremos la oportunidad de seguir la feria desde casa. Y encontraremos muchas novedades y entre ellas el libro "[OLIVETTI](#)" de **Aitziber Etxeberria**, madre de nuestra ikastola. Una novela lleno de misterio y sentimientos que removerán nuestro interior. Realmente, recomendable.

Sin otro particular, un saludo,

ZUZENDARITZA



